

**GERNIKA DEIALDIA.** 'Munduko herri batean' agiria sinatu, eta hainbat poesia ekitaldi antolatu dituzte

# Hitza baliatuz «Euskal Herri jaso, batu, askea» bilatuko dute 51 idazlek

«Euskaldunoi politikan jardun ahal izateko eskubidea zeharo mugatu» izana salatu dute

Idoia Etxeberria | DONOSTIA

Gernika Deialdia herri ekimenaren aldarria bere egin dute 51 euskal idazlek, «bizitzeko eta idazteko Euskal Herri baten beharra» dutelako. Azken hilabeteetan euskal herritar askori «politikan jardun ahal izateko eskubidea zeharo mugatu» zaiela salatu dute, eta «Euskal Herri jaso, batu, askatua bilatzeko» konpromisoa hartu. «Txori-lepo itogarri batean sartu da gure herria, eta idazleok hortik irteteko urratsak emango ditugu hitza baliatuz», dio sinatu duten agiriak. Hainbat poesia ekitaldi antolatu dituzte otsailaren 22an eta martxoaren 7an.

Hogeita bost idazle izan ziren atzoko agerraldian; horien artean, Iñigo Aranbarri, Pako Aristi, Joxe Austin Arrieta, Jon Benito, Harkaitz Cano, Lutxo Egia, Josu Landa, Fito Rodriguez, Asier Serrano eta Juan Luis Zabala. Aranbarri hartu zuen hitza, *Munduko herri batean* idatzia irakurri eta antolatu dituzten ekimenen berri emateko.

«Euskal Herriko idazle askok, irakurle askok arnasa bezala behar du Euskal Herri bat. Bestela bere izatea bera galduko bailuke, eta horrek hiltzearen antzeko izan behar du. Pentsa ezazue bat-batean norbait mundurik gabe uzten dutela. Deserrotze gordin bat», esan zuen Aranbarri. Haren hitzetan, «literatoa ez da pertsonaia literarioa», beste edonor bezala «munduko herri batean» bizi da, «hainbat eta hainbat ardurarekin».

«Frantzia errepublikanoaren kideko ttattarra den Espainia monarkikoak» euskaldun askori politikan jarduteko eskubidea kendu diola uste dute agiriaren sinatzaileek: «Euskal Herriak herri izaten jarrai dezan aukera



Atzo prentsaurreako eman zuten hogeita bost idazleak, harmailetan eserita.

zapuztu nahi dutela ari gara ikusten, kezkaz larrituta. Ez dugu liburuetako orrietan aterpe hartutako Euskal Herri bat nahi. Irain bat da demokrazia liburuetan bilatu behar izatea».

«Euskal Herriak herri izaten jarrai dezan» ez dutela «amore emango» jakinarazi zuten, «zeinek bere jardunean eta txokotan», hitza bidelagun hartuta.

## Martxoaren 7ko ekitaldia

Poesia emanaldien berri eman zuen Aranbarri, otsailerako eta martxoaren 7an, baina, esan zuenez, «behin-behineko programa da. Gehiago etorriko dira, bai ekimenak bai idazleak». Mikela-zulo, Diapoesia, Bihotz bakar-tien kluba eta Geizpetatik taldeek hartuko dute parte. Martxoaren 7an, *Munduko herri batean* ekitaldi poetiko berezia egingo dute Bilbon, poesia eta ipuinak uztartuz, hogeita bat lagunek.

## Hizkuntz eskubideei buruzko jardunaldiak egingo dituzte Iruñean, otsailaren 22an

I. Etxeberria | DONOSTIA

Gernika Deialdia herri ekimenak hizkuntz eskubideei buruzko jardunaldiak antolatu ditu otsailaren 22rako, Iruñean. Laura Mintegi idazleak, Julen Kaltzada itzultzaileak eta Miren Zabaleta ikasleak azaldu zituzten ekimenaren nondik norakoak, atzo.

Jardunaldiak Golem zinemetan egingo dira, 11:00etan, eta Udalbiltzaren Hizkuntz Eskubideen Karta izango da eztabaidarako oinarria. Mintegik euskararen «egoera larriaz» jardun zuen atzo. Haren ustez, «indarrez ezarritako politika-

ren errua» da egun euskara Euskal Herri osoan «hizkuntza ofiziala» ez izatea. Izan ere, «estatuek euskara desagerrarazi» nahi izan dituztela dio. Euskaraz bizitzeko eskubidea errespetatzeko eta zatiketa administratiboa buka dadila eskatu zuen. Irakurri zuen testua Luis Barrenagarrementeria abokatuak, Estitxu Fernandez ETBko aurkezleak, Xabier Isasi EHUKo irakasleak, Koldo Izagirre idazleak, Maialen Lujanbio bertsolariak, Fermin Muguruza musikariak eta Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak ere sinatu dute.

## IDAZLEEN ZERARENDA

51 idazlek sinatu dute *Munduko herri batean* agiria

■ Gaizka Amondarain  
■ Nagore Amondarain  
■ Igor Aranbarri  
■ Iñigo Aranbarri  
■ Pako Aristi  
■ Joxe Austin Arrieta  
■ Joseba Aurkenerena  
■ Jon Aurrekoetxea  
■ Joxe Azurmendi  
■ Begoña Bilbao  
■ Gotzon Barandiaran  
■ Jon Benito  
■ Gari Berasaluze  
■ Harkaitz Cano  
■ Jose Mari Carrere  
■ Lutxo Egia  
■ Joxe Mari Esparza  
■ Jose Ramon Etxebarria  
■ Gorka Etxeberria  
■ Txema Flores  
■ Xabier Ganzarain  
■ Mikel Garmendia  
■ Oier Guilan  
■ Mikel Ibarguren  
■ Koldo Izagirre  
■ Edorta Jimenez  
■ Josu Landa  
■ Alfontso Martinez Lizarduikoa  
■ Iñaki Mendiguren  
■ Xabier Mendiguren Elizegi  
■ Juan Karlos Merino  
■ Laura Mintegi  
■ Jose Luis Otamendi  
■ Jose Maria Perez Bustero  
■ Iñaki Petxarroman  
■ Patrick Queheille  
■ Paddy Rekalde  
■ Fito Rodriguez  
■ Karlos Santisteban  
■ Beñat Sarasola  
■ Alfonso Sastre  
■ Asier Serrano  
■ Pako Sudupe  
■ Aitor Txarterina  
■ Kepa Urbiet  
■ Kirmen Uribe  
■ Ana Urkiza  
■ Jon Urrujolegi  
■ Urtzi Urrutikoetxea  
■ Juan Luis Zabala  
■ Angel Zelaieta

## POESIA EMANALDIK

Hau da antolatutako ekimenen behin-behineko egitaraua:

**Otsailak 14:** 'Letren kilimak', Azpeitiko Orkatx tabernan.

**Otsailak 21:** 'Ezkerrez idatzitako literatura', Elorriko Arriola aretoan.

**Otsailak 27:** 'Letren kilimak', Larrabetzuko gaztetxean. 'Geizpetatik', Azpeitiko Urtzi tabernan.

**Otsailak 28:** 'Ezkerrez idatzitako literatura', Erreterriko Mikelazulon.

**Martxoaren 5:** 'Inon izatekotan', Gasteizko gaztetxean (Jon Benito-X.Ganzarain)

**Martxoaren 7:** 'Munduko herri batean' ekitaldi poetiko zabala, Bilboko Kalderapekon. 'Poeta hilen kluba', Erreterriko Mikelazulon. 'Geizpetatik', Zarauzko Arrano tabernan.



## ZUMARRAGAKO UDALA

### IRAGARKIA

Zumarragako Udal Buruak, 2003ko urtarrilaren 27an emanadako 3/ 2003 Dekretuaren bitartez, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.** Hasierako onespina ematea Zumarragako Hiri Antolamenduko Arauetako A-12.2 (Jai Alai) alorrari buruz Construcciones Francisco Múgica, S.L. enpresak sustatu eta Iñaki Ondarra Mugika eta Juan Manuel Diego Kerejeta Arkitektoek duten Xehetasunezko Azterketari.

**Bigarrena.** Erabakitakoa herritarrei aztergai eskaintzea 15 laneguneko epean zehar, iragarki hau Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Diario Vasco eta Egunkaria egunkarietan argitaratu emanda, hartara interesatu guztiek beren interesei eusteko egokien iritzitako eskakizunak aurkez ditzaten.

**Hirugarrena.** Atal horretan sailen bat duten jabe guztiei eta interesdun guztiei erabaki hau banan-banan jakinaraztea.

Aipatutako iragarkia 2003ko otsailaren 5eko G.A.O.n, 23. zenbakikoan, argitaratu da; hortaz, errekamazioak egiteko epea otsailaren 22an amaituko da.

Zumarragan, 2003ko urtarrilaren 16an.

ALKATEAK,

Sin.: Aitor Gabilondo Ruiz



## TOLOSAKO UDALA

### LEHIAKETA

1.- Helburua.- Tolosako Udal igerilekuen garbiketa zerbitzuen kontratazioa.

2.- Lizitazio oinarria.- Lehiatzaileak zerbitzua zenbatean emango duen adieraziko du. Eskaintzen den kopurua hilabete bati dagokio eta gehienez 5.032,25 eurokoa izango da. Kopuru horretan sartuta daude materialaren, makineriaren eta garbiketa-produktuen kostua, eta horiek guztiak kontratistaren gain geratzen dira. Era berean, zerga- eta gastu-mota guztiak sartuta egongo dira, BEZA barne.

3.- Kontratuaren iraupena.- Urteberatroko, 4 urtetara luza daitekeelarik

4.- Behin behineko bermea.- 480 euroak

5.- Behin betiko bermea.- 3.600 euroak

6.- Proposamenak.- Prozeduran parte hartzeko agiriak Udaletxeko sarrera-erregistroko bulegoetan aurkeztu behar dira (Plaza Zaharra 6 B) 2003 otsailak 19ra arte (9:00 -13:00) bitartean.

7.- Informazioa.- Informazio gehiago lortzeko eta lehiaketarako baldintza-plegua erzagutzeko, Udaletxeko sarrera-erregistroko bulegoetan agertu edo telefono honetara dei egin 943 69 75 00

Tolosa, 2003ko otsailak 5. ALKATEA